

Ibailalde, pausoz pauso

BERA KRUZ IKASTOLA (MARKINA-XEMEIN)

Hezkuntza-maila guztietako ikasleei ingurumenaren babesari eta, zehazki, ibaien zaintzari lotutako balioak eskaintzeko xedez, Ibailalde kanpainak proposatutako jarduerak bi modulutan bereiztea erabaki du Markinako Bera Kruz Ikastolak. Programa ikasle txikien curriculum-beharretara egokitzeko eta ekimenari ikasle-bizitza osoan zehar jarraipena emateko aukera ematen du erabaki horrek.

Markina-Xemein udalerria zeharkatzen duten ibai eta erreka guztien artean Urko aukeratu aurretik eta, jakina, ingurunearekin lehen kontaktua izan baino lehen, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek nahitaezko ikasgelako lana egin dute: analisi bakoitza egiteko zer parametro erabili behar diren jakitea. Lehen urrats horretan, ezinbestekoa da zenbait kontzepturen esanahia ezagutzea, hala nola, eutrofizazioa, laginketa, saturazioa eta disoluzioa, zer diren eta zer eginkizun betetzen duten; zein diren nitrato, fosfato, pH eta abarren balio jasangarriak; neurtzeko unitate berriak (mg/l, ml...)

eta gai kimikoak nola erabili behar diren...

Kontzeptu guztiak finkatutakoan, landa-lanaren ordua iritsiko da. Lehen hezkuntzako ikasleen artean zenbait talde sortuko dira, zazpiraino, tutoreekin batera erreka biziaren inguruko hainbat alderdi ikertzeko. Arratsalde oso batean, erreka ibilguan zehaztutako gunera inguratu eta hiru gai aztertuko dituzte parte-hartzaileek. Ikerketa-lanari ekiteko, nahitaezkoa da, lehenagó, lekuaren analisia egitea: ibilgua, neurketak eta uraren kalitatea. Orotan, garrantzitsua da gauden ekosistemaren dibertsitate biologikoa ezagutzea: landareak eta animaliak (bitxia da zenbait ornogabe aurkitzea). Kontuan izan beharreko hirugarren parametroa gizakiok ibaian utzitako oinatza da: positiboa, adibidez, kultura-ondarea, eta negatiboa, hala nola, uretara botatutako hondakinak, ibai-ertzetan utzi ohi ditugun zaborrak eta abar.

Bigarren hezkuntzako ikasleei dagokienez, jardueraren erreferentzia "Urko: ibai indartsua" izeneko unitate

didaktikoa da. Aurreko etapan hasitako lanarekin jarraitzeko, ibaiak Markinatik Barinagara bitartean egiten duen bidean zehar ibilbide didaktikoa egin eta gizakiak denboran utzitako oinatza aztertzen da. Inguru horretan, gizakiaren esku-hartzeak eragindako aldaketa nabarmenak aurki daitezke: presak, zubiak, errotak, olak eta abar, esaterako. Elementu horiek ibaiaren indarra baliatu dute energia berriztagarriak sortzeko. XV. mendetik aurrera ibaiari emandako erabilerak aztertzeko eta ibaiaren ahalmenaz baliatzeko egindako ingeniari-talantak ezagutzeko aprobetxatzen da ibilaldia.

Ikerketa horren emaitzatik hainbat ondorio eta zeregin aterako dira, ikasleek eta ikastetxeak ondorengo ikasturteetan praktikan jartzeko. Horrez gain, talde guztiek bildutako informazioa jendaurrean jarriko da ikusgai, Bera Kruz Ikastolako txoko berdean, ikasgai horiek hezkuntza-erkidego osoari ezagutarazteko xedez.

